

KULTURARI BURUZ

Eduardo Gil Bera

Cerverako Unibertsitateko irakaslegoaren dibisa: «Urrun gurengandik pentsatzeko keria arriskutsua» ximple eta garbi zen eta uste baino atxikimendu gehiago erakusten zuen unibertsital tradizio zaharrari. Denbora luzez ikasleagoak eta apezgoak batetara jotzen zuten. Edo, bera baita, unibertsitatea katiximaren jarraipen suerte bat zen.

Hutsik ez egiteko eta markaturiko bidetik ez errebelatzeko izan behar ziren iritziak ikasten ohi ziren eta, horretarako, pentsatzea ez da biderik egokiena, ez horixe. Pentsatzea kaltegarria eta arriskutsua dela lehen irakaspenetarik bat izan da, eta hau non eta nolana ere.

Irakaspen hau bi bidez egin izan da —agian egiten ohi da hobeki erranik legoke—, bata debekatzea eta bertzea pentsatzeko keria onorioek dituzten nekeak eta arriskuak aditzera ematea.

Afera errex xamar zen zeren pentsatzea, norik bere kabuz pentsatzea alegia, hagitzez hurbilagoa baita salbuespenetik normatik baino.

Debekatzekoa argi-argia dago, gizakia betidanik jarri baita tresna hori erabiltzera eta ulertzera. Pentsatzeko abantailez edo desabantailez denaz bezainbatean, are errexagoa zen.

«Pentsatzeko keria arriskutsuak» ez du abantailarik, ez zaio artaldeari frogatu behar huts eginik eta bidetik errebelatua ibiltzea, hots artaldeaz kanpo ibiltzea, desabantaila ikaragarri bat denik; ikusten ez duenari erran behar zaio artaldeaz kanpoan dagoenak bere buruari zigor izigarriak garraia diezaizkiokela, honekin aski izanen da.

Pentsatzeko debekua ageri da doktrina guzietan, horixe da beren gakoa: galdera zenbait asmatzea eta galdera horiek inposaturiko erantzun zenbaitekin hertsiki lotzea, finean beren galderez eta erantzunez aparte sort daitezkeenak debekatzea. Gehien gehienez, jesuiten sofistakaziora ailega daiteke: «Honi buruz pentsa, baina bertze hura ondoriatzeko».

Irakaspen erakundeak honetan bermatu izan dira.

Eta modu honetan, orain dela guti arte, historiadoreen eginkizuna zera zen: gertakari guziak, bortxaz ala amodioz, Bibliaren denborazko sailkapenaren barrena sartzea. Herodoto itzultzen zuenak, adibidez, markatu behar zuen historia horren gertakari, leku edo data bakoitza Bibliaren zein gertakari, leku edo datari zegokion.

Egoera honen lehen urratze edo arrailtze prozesua zientziaren bidez sortu zen. Matematikak, fisikak, astronomiak hasi ziren, ezinbertzez, Bibliaren moldeak gainezkatzen. Galileoren kasuak garai baten amaiera eta bertze baten hasiera markatzen dituela erraten ohi da; baina komeni litzateke xehekiago ikertzea ikuspegi hau.

Molde zaharren suertatu zen gaingipen hau eta gero gertatu zen zientzi garapenaren ondorioz, eratuz doa egun zibilizazioaren izenpean ezagutzen duguna. Hau gogoan atxiki

behar da zibilizazioaren eta kulturaren arteko ezberdintasuna hobeki ikusteko.

Honetan sakonduz, ez litzeteki arras zehatza izanen Galileoren kasuak bi garaien erabat ezberdinen arteko mugarria denik erratea. Fisikaren garapenak ez ditu berarekin garraiatzen, sinesten eta azaltzen oi den bezala, pentsatzeko eta are izateko modu baten desagerpena eta suntsipena. Pentsakeraren historia horrela azaltzen baldin badugu azalean gelditzen ari gara.

Azalezko azalpena da Elizak Bibliaren bidez jendeari inposatu nahi ziola mundu ikusteko era bat; Biblia jende hark zuen mundu ikusteko eraren islada baitzen. Lehenik, artzai herri zikin baten sineskeria eta gero, ñabardura franko bereganatuz eta bertzitxuratuz, zibilizazio oso batena. Eliza, artaldearen zati beraz, erabiliaren beraren bortxaz kasik zentzu izpirik ere ez zaiola gelditzen. Egin genezake, hala ere, ideia hau ikertzeko ahalegin bat.

Ezagun denez, hitzaren etorkia latinean dugu. Lantzea du erran nahia. Baina egun erabiltzen den moduan gauza berri xamarra da. Kultura hitza, bertze bat lagundu gabe, duela bi mende eskas Herder-ek idatzi omen zuen lehenbiziko aldiz. Baina, jakina, giza ixurpen zahar baten adierazpena da.

Munduaren kontzeptu teologikoak biziaz kanpoan kokatzen ditu bizitzaren beraren zentzua eta arrazoa.

Xinpleki itzurpen huts bat da eta saldoaren senak eta beldurrak eskatzen duenak. Saldoak, tropak, bere eginbidea du eta ongi baino hobeki betetzen du: taldearen kontserbapena; ekintza indibidualak kontserbapen horren kontra jokatzen du eta debekatzen da.

Kulturak, berriz, munduaren gogo kontzeptu bat badu eta, honetan, biziaren zentzua soilik bizitzaren beraren baitan izan daiteke. Inmanentzia deitzen dena. Hemen dugu, ene iduriko, kultur afera honen kokka.

Kultura salbuespen bat da jokaera indibidual bat eskatzen baitu. Beti izanen da, beraz, lantze indibidual bat. Ez du helbururik izanen, baldin eta helburutzat gutaz landa, gutaz haratago edo gutaz geroago den zerbait aditzen badugu.

XV. mendean, Eneas Silvio papa izendatua zen. Gizon kulto bat, halakorik noizbait izateko ere. Idazmolde modernoen bide urratzaile nagusia. Eta haren pean Eliza zer? Eliza betikoa, egungoa bezalaxe. Zer arraio ikuskizunik honen edo horren pertsonal joera, papa den ere? Deus ez. Eneas Silvoren kulturak ez zuen bere buruaz haratago ondoriorik; non ez den, jakina, bertze pertsonal joera bat haren aitzinean paraturik, bere mugidaz eta hauturaz ari den irakurle bat, adibidez.

Papa hau hil zen turkoen aurkako gurutzada bat prestatzen zuelarik, bat eta gidaria zenez, artaldearen pentsakeraren islada zen ere; zentzu honetan, Galileoren epaileek, asaldatuz eta fisik azalpenak ukatuz, herri osoaren ordezkariak gisa jokatzen zuten. Jokaera demokratiko bat zutela erran liteke.

Baita azaleko azalpena litzateke ere mundua borobila zelako teoriak iraultza bat ekarri ziola herri pentsakerari.

Aita Sainduaren tronak tinki iraun zuen, berdin, mundo ordokian zegoen gisan, bueltaka zebilen mundu borobilean.

Munduari buelta ematen zioten Felipe II.en itsasontzietan kapelau bat bazen, igandetan meza nagusia, Bazko egunetan obligaziozko konfesione eta, oraintxe bezala, Zerua goian eta Infernua behean.

Inkiszioa ez zen xoratzen unibertso handiaren barrena horren agudo biraka zihon planeta borobilean eta bere eginbidea betetzen zuen.

Ptolomeoren sistimari atxikitzen zion Elizak, bai, baina ez zutabe nagusia zitzaiolako; hor bazen, xinpleki, inertzia arazo bat. Hori zen jenderik gehienak uste eta sinesten zuena. Baina Eliza bezalako fenomeno bat ez da horretan bermatzen. Hori bezalako masa fenomenoen erroak barrenago doaz eta gizakeraren hondoa, hots, saldozaletasunean eta beldurrean dute har leku. Horretarako, «Big Bang»-en teoriak gauerdiko ahuntzaren eztulak bezainbat eragina du. Berdin da zientziaren aitzinapena nolakoa den.

Pasa den mendean, bertze adibide hurbilago bat paratzeko, unibertsital giroan baita horretaz kanpoan ere, eboluzioa zen solas nagusia. Zenbat mokokaldi eta zer nolako erresistentzia elizkoiaren aldetik! Gehienen ustetan, aldeko edo kontrako ziren ere, teoriak erlijioaren zimenduak atakutzen zituen.

Eta zer zen gertatu? Deus ez. Beti bezala, bertze teorietan bezala, Elizak ere bere peoiak kokatu zituen; hor da Tehilard de Chardin jesuita, eboluzioan adituenetarik bat, tximinoen artean «ariketa espiritualak» banatzen.

Kultura, aldiz, arras bertzerik da. Egia da kontzeptu erebiliegia dela eta, Gurutzadak esplikatuz dizkigute fanatismoaren eta ebasgogoaren ondorio bat gisa; ez dakit, bai agian. Baina eginen nuke Eneas Silviok orduan aurkitu berriak ziren hainbat greko eta latinezko gutun eta sortu berria zen aitzinatea berrikertzeko grina eta, harekin batean, indibiduoaren garapena, hori oro, Asiatik zetorkien eragin ilun eta saldokoiaren kontra defendatu nahi zuela, eta horretarako gurutzada bat antolatzea bezalakorik ez.

Egun, zahar pentsioak eta osasun publikoa bezala, kultura estatuaren emaitza bat da. Bada kultur ministeritza, ziengotzigoa, aretoak, asteak, hamabortzaldiak, papak eta apezpikuak. Eguzkitan beltzatzen den gisaz, kultura kultur aretoetan, liburu egunetan, erakustaldietan eta bertze kultur intzientsuntzietan atxik daiteke urrin bat balitz bezala. Hitz harro bat paratzekotan, erlijio bat gisa transzendente egin dela erranen nuke. Idurika huts bat dela.

Zerutik erortzen den zerbait da, euria bezala, kultura. Horrela eskatzen, eskatzen ez, exijitu egiten da, dretxo bat gisa. Agian nork bere buruari exijitzea zailago baita.

Aldizkari hau, pertsonal joera batzuen islada eta bertze pertsonal joerari zuzendurik denaz bezainbatean izanen da kultur fenomeno bat. Bertzenaz, parroki orria bainoago ez da izanen.

Lehenagoan garelako hona hau, irakurle.

En esta breve reflexión sobre la cultura, Eduardo Gil Bera insiste en el riesgo que históricamente ha existido en ciertas instancias oficiales o institucionales diversas hacia el pensamiento libre y personal, base y fundamento en opinión del autor de cualquier producción cultural con contenido propio.

In this brief reflexion on culture, Eduardo Gil Bera insists on the risk that historically has existed in certain official instances or diverse institutions towards free and personal thought, the base and foundation in the author's opinion of any cultural production with real content.